

#### **4. HARREMANAK**

Hainbat izan daitezke bezeroen eta enpresaren arteko harremanaren atzean egon daitezkeen motibazioak. Bezeroak lortzea ez da lan erreza eta hauek mantentzea askoz ere zailagoa denez enpresek taktika desberdinak burutu behar ditu. Gure kasuan adibidez denborak aurrera egin ahala, webgunean deskontuak eta beste hainbat sorpresa eskainiko ditugu. Gainera aktibidade desberdinak burutzeko aukerak egongo dira eta hauen bitartez gure enpresaren eta bezeroaren arteko harremana indartu egingo da. Harremanak indartzen diren heinean, salmenta edo gure eskaintzen erabileraren kopurua handitu egingo da enpresaren hedatzea eta bezeroaren onurak ekarriz.